

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 14a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLETXEA FERNÁNDEZ.

6366

EBAZPENA, 2005eko abenduaren 14koa, Teknologia eta Industria Garapeneko sailburuordearena; honen bidez, argitaratzen da 2006ko ekitaldirako deialdia, 2005eko ekainaren 27ko Aginduan ezarritakoari jarraituz laguntzak ematekoa, agindu horrek garatzen baitu garapen teknologikorako eta berrikuntzarako proiektuak egiteko laguntza emateko Innotek Programa.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko ekainaren 27ko Aginduak garapen teknologikorako eta berrikuntzarako proiektuak egiteko laguntza emateko Innotek Programa garatzen du.

Aipatutako aginduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2006ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arauak ematea.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 13. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

XEDATU DUT:

1. Artikulua.— Xedea.

1.— Esan dugunez, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko ekainaren 27ko Aginduak garapen teknologikorako eta berrikuntzarako proiektuak egiteko laguntza emateko Innotek Programa arautu zuen, eta, hain zuzen ere, 2006ko ekitaldirako laguntza horien deialdia egitea, horixe da ebazpen honen xedea.

2.— Helburu hori betetzearren, guztira, 15.500.000,00 euro zuzenduko dira horretara 2006ko Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorre-

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La presente resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.— Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2005.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLETXEA FERNÁNDEZ.

6366

RESOLUCIÓN de 14 de diciembre de 2005, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para el ejercicio 2006, dentro del marco establecido por la Orden de 27 de junio de 2005 por la que se regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación. Programa Innotek.

La Orden de 27 de junio de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación. Programa Innotek.

De conformidad a lo establecido en el artículo 13 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2006, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 13 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

1.— Es objeto de la presente resolución, la convocatoria para el ejercicio 2006 de las ayudas, previstas en la Orden de 27 de junio de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo tecnológico e innovación. Programa Innotek.

2.— A su financiación se destinan 15.500.000,00 euros, con cargo al correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Genera-

tan, arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren kontura.

Deialdi honi lotuta, gehienez jota ere guztira eman den diru-laguntzen zenbatekoa ez da izango artikuluhonetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengo eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Horrenbestez, diru-kopuru hori ahitutakoan, ezin izango da diru-laguntza gehiago eman. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri jakinaraziko da Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpenaren bidez. Era berean, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) lagundu egiten du Innotek programaren finantzaketan.

2. artikulua.— Betekizunak.

Eskatzaileek 2005eko ekainaren 27ko Aginduan iragarritako laguntzak eskuratu ahal izateko, aipatutako agindu horretako 7. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

3. artikulua.— Eskabideak eta epea.

1.— Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak aurkeztu behar dira Industria, Merkataritza eta Turismo lurralde-bulegoetan, sailean bertan, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan (SPRI) edo, bestela, azaroaren 26ko 30/1992 Legean zehaztutako lekuetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena).

Eskabidearen eredua eta formularioak eskuratu ahal izango dira Industria, Merkataritza eta Turismo lurralde-bulegoetan, sailean bertan, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan (SPRI) eta gainera Interneteko helbide hauetan ere aurkitu edota bete ahal izango dira agiriok: www.euskadi.net/industria eta <https://www.spri.es/idi/idi/>.

2.— Eskabideak aurkezteko epea hasiko da ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean eta 2006ko maiatzaren 15ean amaituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espeditteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ekonomia eta Ogasun Sailaren 1985eko azaroaren 12ko Aginduak ezarritakoaren arabera, ebazpen honetan jasotzen diren laguntzak baldintza hau betetzen bada emango dira: 2006ko eki-

les de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2006.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria, no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial. Asimismo, el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) contribuye a la financiación del presente Programa Innotek.

Artículo 2.— Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 27 de junio de 2005 deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 7 de la Orden de referencia.

Artículo 3.— Solicitudes y plazo.

1.— Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en el mismo Departamento y en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A (SPRI), bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Un modelo de solicitud y de formularios, que podrán utilizarse para la formulación de las solicitudes por los interesados, estará a su disposición en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en el mismo Departamento, en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A (SPRI) y además se podrán cumplimentar y/o descargar en la dirección de Internet: www.euskadi.net/industria y también en la Web: <https://www.spri.es/idi/idi/>.

2.— El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el día 15 de mayo de 2006.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con la Orden de 12 de noviembre de 1985, del Departamento de Economía y Hacienda, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la concesión de las ayudas a que se refiere la presente resolu-

taldian Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horretarako, hilabeteke epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 14a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburordea,
JOSÉ IGNACIO TELLETXEA FERNÁNDEZ.

6367

EBAZPENA, 2005eko abenduaren 14koa, Teknologia-ko eta Industria Garapeneko sailburuordearena; honen bidez, Etorrek programarako 2005eko laguntza-esleipenaren baliabide ekonomikoak handitu direla jakinarazten da. Programa horrek ikerketa estrategikoak egiteko laguntzak ematen ditu.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko urriaren 7ko Aginduak, 2003ko apirilaren 16ko Aginduak eta 2005eko martxoaren 22ko Aginduak aldatutakoak, Etorrek programa arautzen du, hau da, ikerketa estrategikoak egiteko laguntzak ematen dituen.

Agindu horren 9. artikulua dioenarekin bat etorriz, orduko Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordearen ebazpen batez, 2005eko martxoaren 23koa, deialdia egin zen 2005. urtean Etorrek programaren barruan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ikerkuntza estrategikorako ematen dituen laguntzak jasotzeko. Deialdi hori 2005eko apirilaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Kontuan hartuta Etorrek programaren barruan aurkeztu diren laguntza-eskabideak eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak aurrekontuetan erabilgarri dituen baliabideak, egoki iritzi zaio 2005eko ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzeari.

ción, queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del ejercicio 2006.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2005.

Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLETXEA FERNÁNDEZ.

6367

RESOLUCIÓN de 14 de diciembre de 2005, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo para la investigación estratégica en el marco del «Programa Etorrek», para el ejercicio 2005.

La Orden de 7 de octubre de 2002, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 16 de abril de 2003 y la Orden de 22 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, regula el «Programa Etorrek» de ayudas a la investigación estratégica.

De conformidad a lo establecido en el artículo 9 de la citada Orden, el entonces Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial dictó resolución con fecha 23 de marzo de 2005, publicándose la convocatoria en el BOPV de 4 de abril del 2005, para el ejercicio 2005, de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a la Investigación Estratégica en el marco del «Programa Etorrek».

Teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, dentro del Programa Etorrek, y en función de las disponibilidades presupuestarias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2005.